

Itsaso Zaldua Iriberriren baldintzapeko askatasunaren aldeko mozioa

Hernaniko herria historian zehar biolentzia ezberdinen lekuko izan da, min eta biktima moduan ondorio latzak izan dituelarik.

Udal honetako talde politikoek bakearen eta elkarbizitzaren alde lan egiteko asmoa dugu, modu ezberdinean pentsatzen dugun herritar ezberdinen artean. Honegatik, uste dugu udalak bizi dugun gatazkaren biktima guztiak babesteak bide honetan aurrera egiten lagunduko duela.

Gaur, Itsaso Zaldua Iriberrik legez baldintzapeko askatasuna lortzeko aukera du. Honegatik, udal batzar honek kalean bere bizitza berhartzeko babesa eskeini nahi dio, eta ahal duen heinean lagundu, beste herritarrei bezala, helburu hori lortu eta elkarbizitzan pausoak ematen jarraitzeko.